



EJGE-TSJPVk ez du onetsi ikastetxeetako jantokiei buruzko beste espediente batean Comercial Aibak-ek Lehiaren Euskal Agintaritzaren kontra aurkeztutako errekurtsioa

Lehiaren Euskal Agintaritzak Auzo Lagun eta Cocina Central Magui enpresei espedienterik ez irekitzea eta Aibak-ek aurkeztutako beste salaketa baten ondoriozko jarduketak artxibatzea erabaki zuen

Epaitegiak arrazoia ematen dio Lehiaren Defentsarako Legearen arau hauste zantzurik ez zegoela erabaki zuen Lehiaren Euskal Agintaritzari

BILBON, 2019ko maiatzaren 27an / Euskadiko Goi Epaitegi Gorenak (EJGE-TSJPV) adierazi du ezin dela onartu Comercial Aibak TRS S.L.-k Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC), 2018ko urtarrilaren 18an eman zuen Ebazpenaren kontra aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa. Erabaki hartan, Agintaritzak Auzo Lagun S. Coop. eta Cocina Central Magui S. Coop. Enpresei zehapen prozedurarik ez irekitzea erabaki zuen, 2015eko ikastetxeetako jantokien zerbitzuaren lizitazioarekin erlazionatuta.

8 enpresari zehapenak ezarri zizkion lehenbiziko espedienteari buruzko lehen Ebazpenetik denbora gutxira, salatzaile berak, Comercial Aibak-ek, beste salaketa bat aurkeztu zuen LEA/AVCn Auzo Lagun, Cocina Central Magui eta Gastronomía Cantábrica enpresen kontra, 2015eko lizitazioan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxeetako kudeaketa zuzeneko jantokien zerbitzuko 11, 13, 14, 15, eta 17. loteetan aurretiazko akordioak lortu zituztela ulertuta. 2017ko urriaren 3an, LEA/AVCk ikerketa prozedurarik ez irekitzea eta jarduketa horiek artxibatzea erabaki zuen, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. eta 2. artikuluetan aurreikusitako arau-hausteen gainean inolako aztarnarik ez baitzuen hauteman.

2017ko urriko artxibatze ebazpen horren aurka errekurtsorik aurkeztu ez zuen arren, Comercial Aibak enpresak beste salaketa bat aurkeztu zuen 2017ko azaroaren 15ean Auzo Lagun eta Cocina Central Magui enpresen aurka, gertakari berberetan oinarrituta, baina 2015eko kontratazio espediente bereko 13. eta 17. lotei buruzkoa.

Lehiaren Euskal Agintaritzak, salatutako gertakariak berberak zirela ikusita, Lehiaren Defentsarako Legearen kontrako inolako arau-hausteen aztarnarik ez zegoela berretsi zuen, eta berriro ere zehapen espedienterik ez irekitzea eta hirugarren salaketa artxibatzea proposatu zuen.

Euskadiko Goi Epaitegi Gorenako administrazioarekiko auzi Aretoak arrazoia eman dio LEA/AVCri eta, aldi berean, prozeduraren kostak Comercial Aibak TRS S.L.-ri ezartzea erabaki du.



Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta independentzia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoari dagokienez.